

## HELBURUA:

Irizpide artistiko, tekniko eta komertzialen arabera, ongien dekoraturiko Trapagarango establezimenduen erakusleihoak sarituko dira.

## IZEN-EMATEA:

2015eko martxoaren 6a baino lehenago eman beharko da izena Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian (13:00ak baino lehen).

Honako datuak derrigorrez jarri beharko dira izen-emate orrian: Establezimenduaren jabearen izena, parte hartzen duen establezimenduaren izena, IFZ/NAN, Sektorea, Helbidea, Telefonoa, e-maila eta web gunea.

### Informazio gehiago:

Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian  
Maiatzaren Lehena etorb., 1  
Tel. 94 486 31 96  
www.trapagaran.net

## PARTE- HARTZAILEAK:

Kale sestran dauden Trapagarango merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimendu guztiak har dezakete parte.

## ERAKUSTALDIA:

Erakusleihen erakustaldiak, gutxienez 2015eko martxoaren 16tik apirilaren 11ra iraungo du.

## IDENTIFIKAZIOA:

Parte hartzen duten establezimenduek lehiaketaren antolatzaileek emandako bereizgarria jarriko dute ikusgai erakusleihoan.

## ZABALKUNDEA:

Antolatzaileek ahalik eta zabalkunderik handiena emango diote lehiaketari eskura dituzten hedabide eta sare sozialetan.

## BALORAZIOA:

Erakusleihen dekorazio-proiektu bakoitza originala izan beharko da eta, funtsean, honako atalak baloratuko dira:

- Kalitate
- Irudi komertziala eta produktuaren aurkezpena
- Sormena
- Argiztapena
- Modernitatea eta berrikuntza

## EPAIMAHAI:

Erakusleihen apainketako, arte ederretako, dekorazioko eta merkataritzako profesionalen osatuko da epaimahaia.

Epaimahaiak eman gabe utz ditzake zenbait sari, hala baderitzo. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

## EPAIMAHAIAREN EPAIA :

Apirilaren 21ean, 20:30ean La Escontrilla Herri-Ikastetxeko Balio Anitzeko Aretoan egingo den sari-banaketa ekitaldian emango da ezagutzera epaimahaiaren epaia.

## SARIAK

Honakoak izango dira

### • EPAIMAHAIAREN 1. SARIA

Diploma  
Udalaren garaikurra  
Erreportaje eta 2 publizitate-zerrendaren argiratarapena Hemendik Ezkerraldean (Deia)

### • EPAIMAHAIAREN 2. SARIA

Diploma  
CECOBlren garaikurra

### • PUBLIKOAREN 1. SARI BEREZIA

Diploma  
Udalaren garaikurra  
Publizitate-sorta bat Radio 7n

### • PUBLIKOAREN 2. SARI BEREZIA

Diploma  
Ezkerraldendaren garaikurra

Publikoaren bi sariak bozketa herrikoiaren bidez hautatuko dira. Horretarako, parte hartzen duten establezimenduetako batek emandako flyer bat sartu beharko da, apirilaren 10a baino lehen, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian kokatuko den hautetsontzi batean.

Gehien gustatu zaien erakusleihoari botoa eman dioten pertsona horientzat ere sariak egongo dira:

- 200 euroko erosketa-txartel bat, herriko dendetan trukatzeko.
- 200 € euroko erosketa-txartela Baturiken trukatzeko, Nafarroako Rural Kutxaren eskutik.

Bi irabazleak nortzuk diren jakiteko zozketa apirilaren 13an, astelehenean, egingo da, 14:00etan, Olaso Jauregian.

Sari bat baino ez dute eskuratuko bai establezimenduek eta bai botoa ematen duten pertsonak, hortaz, baten bat bigarrenez irabazle suertatuko balitz, botorik gehien duen hurrengoari emango litzaioke saria.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

2º CONCURSO  
DE ESCAPARATES  
TRAPAGARAN

IMUESTRATE,  
PRESUME  
Y PARTICIPA!

INSCRIPCIÓN:  
6 DE MARZO

ORGANIZA



EN COLABORACIÓN:



COLABORAN:

